

ABUZTUAREN 31**DONOSTIARI.**

1813 – 1888.

Bear batek gaur zugan jarririk
Pentsamentubak narama,
Nere gogoan daguelako
Oroigarritzko eguna:
Biotz gogorra izango nuke
Detan bezela biguña,
Ez banintzake gogoratuko
Gaur zutzaz geyen geyena.
Igaroturik zenbait denbora,
Urtiak juanagatikan,
Etzerade juan egun ontan zu
Iñoi nere gogotikan;
Eta gañera ikusten zaitut
Banintz bezela orduan
Gauza bat guchi ta urrutian
Ikusten degun moduban.
Laño illunak estalitzen nau
Zerbait ikusi nayian,
Autsa ta kia, sutunp soñuba
Nastuturikan aidian;
Negar-samiñak, ikara, suba

¡Eta zér gauzak artian.....
.....!
Itzakiñ eziñ esan nezake
Euskara manchik gabian.
¡O!... Nere Jauna guztiz maitea
Eta ongille danena,
Ara kantari zure seme bar
Erriaren oroipena;
Ez da odola gorputzen zañak
Gaur bustitzen ditubena,
Baizik negarra legor gabia
Ordutik datorkiguna.
Aur nintzanean esaten ziran
Nere amonak frankotan
Magalchoan ¡ai! nolako gauzak
Gerta ziran Donostian;
Ordu ezkerro iñoi gogoak
Ez nau eman pakerikan
Eskeñi nairik oroitz bat zuri
Biotzaren barrendikan.

FRANZISKO LOPEZ.

